

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko irailak 4 / II. urtea / 40. zenbakia

## Erasmusen urratsen atzetik

Rotterdam-en jaiota Erasmusek XV mendean Cambridge, Oxford, Parise, Erroma, Lovania eta Basel-eko unibertsitateak ezagutu zituen. XX mende amaieran, berriz, ikasle gehienen mundua jatorrizko unibertsitatean bukatzen da. Ikasteko beste moduak badirela erakusteko, Europako Elkarteak Erasmus programa sortu zuen duela bost urte. Horri esker, ikasleek unibertsitatez alda dazakete jatorrizkoarekiko loturak galdu gabe. Brusselan sortzen diren ekimenak maiz hitz politetan gelditzen badira ere, oraingoan zerbait zehatza lortu dela esan daiteke. Nafarroako Unibertsitate Publikoa aurten sartu da Erasmusaren sarean eta zazpi ikasle bidariko ditu Italia eta Eskoziara.



### Bi Hormetara



JOSETXO AZKONA

**O**rain dela makina bat aintzinate, hirurogeitabost milioi urtetik goiti badela diote Paleontologia adituek, erori omen zen gure Lurrera, Eguzkiari taigabe jira-biraka zebilkion kometa batetatik, noizbait, askaturiko meteoritotzar bat. Zergatik edo nola gerta zitekeen fenomeno, ez omen da garrantzizko kontua, meteoritoak gure planetan erakarri zuena, bai ordea.

Tupust ikaragarri harengatik, bada gabe, Lurraren eremu grabitatorioa aldatu, hauts odei erraldoiak osatu eta egundainoko lurrikarak izango ziren, gure planeta hankaz gora paratuz. Bidenabar, itsasoetako urek gainezka egingo zuten, izutzeko moduko uholdeak sortaraziz. Artea bizi ziren landareak eta piztiak, puntako hotz-bero eta giro pozointsuenetik, galtzen joango ziren ezinbestean. Tripako minez eta kakeriaz ere hilko ziren piztietarik ehundaka.

Aldian behin, eta bereziki, afari opatsuen ondorioz, haien orru eta biraoak aditzera iritsi ohi naiz amesgaizto gauetan.

Dinosauruak, ehun eta berrogeitamar milioi urtetan zehar planetaren jaun-andre eta jabe izan zirenak, akatuak ere izan omen ziren kataklismo misteriosu harek eraginik. Aie gehiago, debaklea gertatu izan ez balitz, gizakumea ez zela existitu ere egingo defendatzen duenik bada zientzalarien artean. Eta ez da harritzekoa: tximu bat *Apatosaurus* baten ondoan erridikuloa baino ez zuen egingo eta.

Galdera pare bat: guziak desagertu al ziren kataklismoaren medioz? Ez ote zen baten bat bizirik geldituko?

Zazpi tona eta hamabi metro luze zituen *Tyranosaurus*-en hortzak ez al dira, akaso, gupidagabe Sarajevo oinazeztatzen duen Radovan Karadzic-en bezalakoxeak?. Bush eta Hussein-i ez ote zaie *Triceratops*-en mutur bera antzematen?. Euskaldunok ez ote gara *Iguanodon*-engandik etorriko?. Hola bada, zein euskalkitan elekatuko ziren Euskalerriko gure arbasorik zaharrenak?. *Pachicephalosaurus* bat baino gehiago ez al da zurekin bizi izango?. Haiek ere bere senetik aterata biziko ote ziren gu bezala?. Herri ordezkarien hitzotsak ez al dira *Megalosaurus*-aren gisa-koak?. Guziok ez ote dugu antzik *Dimetrodon*-arekin, bi neurriko hortz-lerro zituen narrasti haragijalearekin?. Hainbeste oinaze, txikizio eta telebistako kulebroi ez ote dute *Quetzalcoatlus*-en jarraitzaileek erakarri?...

Dinosauruak ez ziren zientziak dioen bezala duela hirurogeitabost milioi urte desagertu. Ez dute itzultzeko inongo beharrik senditu, gure artean bizirik diraute egundaino. Gu gera haien ordezoak.



## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



'**Dos Bardenas para ti**' izeneko erakusketa gaurtik aurrera ikusgai egonen da Iruñeko Gaztedi Etxean, irailaren 18a arte, hiriko Udalak antolatutik. Asuncion Marin Murchantekoa eta Jesus Ukar San Martin Unxeko artisten lanak ikus daitezke bertan, Nafarroako zonalde berezi honi buruzko gaiak lantzen dituztelarik.

**Cristina Garcia** Rodero artistaren erakusketa ikusgai dago Iruñean, Zapateria kaleko udal aretoan, eta irailaren 27a arte iraungo du. 'España oculta' izenburu pean zabaldu zen atzo erakusketa, bertan espainiar biziari buruzko argazki berezi ugari daudelarik. Usadioak, kristau fedea, denborapasak, ekonomia, kultura, dira, beste batzuren artean argazkilaria aztertu dituen gaiak.

**Jesus Poyo Mendia**, 'Txuspo', artistaren erakusketa ikusgai dago Nafarroako Aurrezki Kutxaren aretoan hilaren 15a arte. Esposaketan erakusten diren lanak Canada eta Estatu Batuetan egin zituen artistak, Nafarroako Gobernuak eman zion beka bati esker, orain dela bi urte. 'Membranas convertibles e impermeables' izenarekin aurkeztu du bere lana, eta egunero arratsaldeko zazpietatik bederatzietara ikus daiteke.

### ERRAN DUTE

**Gurreak UPNren erabakiak ezbaian jarri ditu eta Gobernuari esplikazioak eskatzen ihardun du**

**Miguel Sanz**  
Gobernuko lehendakariordea

**«Taldea on bat dudala konbentziturago»**

**Pedro Mari Zabaltza**  
Osasunako entrenatzailea

**«Patata ekoizleek Gobernu eta gizartearentzat kosturik ez daukan birmoldaketa basatia pairatzen dute»**

EHNE sindikatua

**«Valenciara joatea oso aukera ona da niretzat»**

**Iñaki Ibañez**  
Osasunako jokatzailea

## Txango berezia

Abuztua amaitu da, eta Irailearen lehenengo aste honetan udazkenerantz abiatzen gera. Eguraldi honekin pasiera lasaia eta era berean erakargarriak burutzea gomendatzen dizpegu. Hau dela eta, amaiera berezia duen ibilbidea aurkezten dizuegu.

Etxauriko Haitzak txango honen irteera dira. Astero mendizale zein eskalatzaileen biltoki izaten da. Hortaz, ez da harrizkoa izaten soketatik eskegitako gazteak ikustea. Dena den, geologia edo historia gogoko duen bateonbatentzat inguru erakargarriak izan daitezke. Tontorrekotik lurra arakatu ezker 'numulites' direlako fosilak aurki daitezke. Aurreistorian, Etxauriko Haitzak itsas bazterren zati bat ziren eta bertan bizi ziren maskorrak, landareak eta itsas abereen aztarnak oraindik ikus daitezke. Goizpartea aurreistoria ikertu ondoren, Etxaurarantz abiatzen gara bertan hamarretako goxoa hartzeko asmoz.

Etxauritik Arazuriraino doan bidea luzea izan arren, ez dauka malda handiegirik eta beraz,



nahiko eroso da. Arazurira heldu ezker eta eguzkiak behar haina berotzen badu, herriko igeritokitan bainutxo bat hartzeko aukera dago. Bazkaldu ondoren, Berriozarreraino joaten den bideari berriro eusten diogu, eta

arratsalde partean ailegatzeko gara. Aste bukaera honetan Berriozarreko jaiak direnez, giroa ezin hobea izango dela aurrikus daiteke. Txangoaren amaiera berezi eta erakargarri hau, gaupasa egiteko aukera zabaltzen du.

### ZINEMA



'**Robocop**' (euskaratua) izeneko pelikula botako dute bihar, irailak 5, arratsaldean Bakaiherri herrian, Herri Bira ekitaldiaren barruan antolaturiko filma. Igandean, berriz, Urrotz Hirian izango da ekitaldia, bertan 'No me chilles que no te veo' izen-

koa botako dute. Pelikula hauek kalean eskainiko dituzte, herri guztietan egiten duten bezala.

### MUSIKA



**Balerdi-Balerdi** eta Pottoka musikagileak bihar larunbata, irailak 5, arituko dira Alli herrian,

gabeko 12.00etan. Alliko jaiak direla eta, antolatzailerik talde hauek ekartzea erabaki zuen, eta herriko plazan joko dute, entzun nahi duen guztientzat.

**Patagonia** eta 2112 musika taldeak arituko dira bihar larunbata, irailak 5, Arketas herrian. Ekitaldia gabeko 11.30etan hasiko da bertako tingladoan.

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Mark Knopfler



Abeslaria

Pasa den astelehenean Iruñeko zezenplaza kopetaraino betetzen Mark Knopfler eta bere taldeko kideak ikus eta entzuteko. Aukera hau ez zuten galdu nahi izan bertara azaldu ziren hamalau mila pertsonak eta sarrera lortu ez zuten askok kosoaren inguruetara hurbildu ziren soinu bederen entzuteko irrikitan. Knopflerren kitarra da, dudarik gabe, Dire Straits taldearen kanten arima, eta horrela erakutsi zuen Iruñean, jende guztia txundituta utziz. Talde kideek ez ziren gutxiago izan eta denen artean oso espektakulo ona osatu zuten, argiak eta soinu bereziak ahaztu gabe.

#### Rafael Gurrea



UPNko idazkari nagusia

Rafael Gurreak denbora gutxi Riraun lezake UPNko idazkari-tza nagusian. Alderdiko ofizialisten kritikek eta azpijokoek kopetaraino egin dute Juan Cruz Alliren Gobernu eta gobernuki-deak estrategiaz aldatu dute. Gurrea, Aizpun, Del Burgo etaberraren salaketen zain gelditu beharrean, lehen harria Gobernuak bota du aste honetan. Asteartean Lopez Borderias sailburuak kritikatu zuen Gurrea, «Lurralde eta Gobernuaren sinesgarritasuna parean jarri dituelako». Asteazkenean, berriz, Miguel Sanz lehendakariordearen txanda izan zen.

#### Patxi Leone



Intsumisora

Patxi Leone intsumisora Logroñotik Iruñeko Kartzelara ekarri zuten asteazkenean. Iruñera heldu zenean, lagun eta ezagunek ongiatorri eskeini zioten. Uharteko gazte honek intsumisora izatearen ezbidetako ondorioak jasaten dakiela erakutsi du. Hiru presondegi ezberdinetan bueltaka ibili da baina azkenean Iruñera ailegatu da. Erregimen irakian dagoenez, lagunekin egoteko aukera izango du, eta soberan merezi dituen oporraldi- txoak igartzeko ere. Iruñeko Espetxean Joseba Lazkano eta Javier Zurbano intsumisoeekin batera egongoda Patxi Leone.

**Dantxaka**, Mala Fama eta Bajo Cero musika taldeak bihar larunbata, hilak 5, arituko dira Andosilla herrian, goizaldeko 1.00tan.

**Deskarga** musika taldea bihar larunbata, irailak 5, aktuazioa eskainiko du Deikaztelu herrian, goizaldeko 1.00tan.

**Hertzainak** Rock musika taldea gaur ostirala, irailak 4, arituko da Zizur Nagusian, gabeko 10.00etan. Sarrera dohainik izango da eta herriko urbanizazioan izango da, zelai batean. Kontzertu hau Iruñerriko herrien artean antolatu dute, eta honetaz aparte beste bi gehiago egonen dira Noain eta Berriozar herrietan, talde desberdinak gonbidatuz. Errondako Kontzertu hauek herri desberdinetako jendearen erlazioak hobetzeko pentsatu dira, elkarren arteko dinamika indartzeko.

### ANTZERKIA



**Trokolo** antzerki taldea Bakaiherri herrian arituko da bihar, irailak 5, Herri Bira ekitaldiaren barruan. 'Zalpartaka' izeneko lana antzeztuko du eta hurrengo egunean, igandean hain zuzen, Urrotz Hirian arituko da, bertan 'A bombo y platillo' lana eskainiko duelarik. Arratsalde partean izango diren ekitaldi hauek Nafarroako herrietan barna ibili dira uda guztian eta irailaren 20a arte jarraituko dute.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.



## Riau-Riau jaio berria Caparroson

J.K.L. / IRUÑEA

Iruñeko Riau-Riaua hilzorian dagoenean, Riau-Riau berria jaio zen herenegun Caparroson. Gustokoa dute bertakoek hiriburuko ohitura zahar hori, eta besterik gabe bereganatzea erabaki dute. Gustavo Estarriaga herriko praktikante ohiak musika asmatu, eta letra aproposa egokitu dio. Herriko alkate eta zinegotziek gustora onartu dute ideia, eta herenegun estreineko aldiz, Kaparrosoko salbean herriko mozoek agintarien aurreratzea oztopatu zuten festagirotan. Giro aparta eta —hiriburuan ez bezala— inolako iskanbilik ez.

Riau-Riaua atzean utzita, Atzo umeen eguna ospatu zuten, eta gaur egun berezia izanen da Caparroson. Munduko beste edozein bazterrean emakumearen eguna martxoaren zortzian ospatzen bada ere, Caparrosoko emakumeek gaur ospatuko dute bere eguna. Beraiek aginduko dute gaur jaietan. Bazkal aurretik herriko plazan bilduko dira Caparrosoko emakumeak. Jarraian emakumeen bazkaria egingen dute, herriko gizonak bertatik baztertuz. Azkenik arratsaldean bertizuekin, urteroko show berezia montatuko dute.

Bihar berriz zaharren eguna ospatuko dute Caparrosorrek.



Kaparrosokoek Iruñekoekin pareko izan nahi dute eta Riau-Riau egingo dute.

JOXE

Iaz herriko gizon eta emakume zaharrenak omendu zituztenez, omenaldia ez errepikatzearen aurten bikoterik zaharrena omenduko dute. Omenaldiaren ostean hamaitetako eskeiniko die Udaletxeak bikoteari, eta herriko gainontzeko zaharrei, eta

arratsaldean saltsa dantzatzeko aukera izanen dute zaharrenek herriko plazan.

Igandean erraldoiek izanen dute jaiak gozatzeko aukera. Herriko erraldoiak ez ezik, bertan izanen dira beste 14 herrietatik etorritako 40 erraldoi. Donostia,

Olazti eta Euskal Herriko beste hainbat tokietatik bertaratuko dira erraldoiak, eta batera dantzatuko dute herriko plazan. Gasteizkoek ere etortzekoak ziren, baina ezin izanen dute dantza horretan parte hartu, izan ere Sevilako Expoan izanen dira.

## Adarren aurrean korritzeko azken aukera izanen da Peraltan

J.K.L. / IRUÑEA

Bihar, eguerdiko ordu batan hasiko dira Peraltako jaiak. Txupinazoa ohitura zaharra da Peraltan, eta herritar gehienak izaten dira herriko plazan etxafuegoak eztanda egiten duenean. Elurretako birginaren omenez egiten den prozesioak ere jende anitz biltzen du. Dena den, herri gehienetan gertatzen da hori, eta beraz, bi ekitaldi hoiek ez zieten berezitasun handiegirik ematen Peraltako jaiak. Peraltarrekin beraien jaiak berezitasun kutxua ematea gustatzen zaie, eta hori dela

eta, azken urteetan —eta aurten ere— lau entzierro eta beste lau zezenketa antolatuta dituzte, kanpoko jendea erakartzearren.

Jakina denez, Nafarroan asko dira entzierroa korritzea gustokoa dutenak, eta Peraltak horixe egiteko ia-ia azken aukera ematen du urtero. Pasa ziren aspaldian Iruñeko entzierroak, eta baita duela gutxi Tafallakoak ere, eta Peralta besterik ez da geratzen

zezenen adarren aurrean korritu ahal izateko. Esan bezala, hori egiteko aukerak lau izanen dira. Lau xexen entzierro hain zuzen ere, beste lau xexenketa, eta hoietaz aparte beste bi jaialdi taurinoak izanen dira Peraltako zezen plazan. Igandean, irailak 6, Erik Cortesek, J. Pacheco 'El Califak' eta Manuel Romerok Bar-

**L**au izanen dira Peraltan korritzeko diren entzierroak, eta beste lau plazan izango diren zezenketak, bi, pikadore eta guzti.

cial ganadutegiko sei xexen hilko dituzte, bi pikadoreen laguntzaz. Irailaren 8an, Antonio Correas eta Pablo Hermoso de Mendoza zaldunek Santamaria Lopez anaian ganadutegiko lau xexenei aurre egingen diete. Irailaren 10ean, Emilio Oliva eta Paquiro Arjona ganadutegiko lau zezenekin arituko dira, eta azkenik irailaren 12an Angel de La Rosak eta Diego de Arnedok lau xexen hilko dituzte pikadore eta guzti. Zezenketa guztiak arratsaldeko seiretan hasiko dira, eta bi jaialdi taurinoak —hilak zazpi eta 11an jokatu direnak— ordu berean hasiko dira.

## Hertzainak 'Rondako kontzertuen' eskutik Zizurren izanen dira gaur

A.A. / IRUÑEA

Berriozareko udalak, Zizur Nagusiko eta Noaineko kontzejuek elkarlanean 'Rondako Kontzertuak' delako ekitaldia antolatu dute. Ekitaldi honen barnean Hertzainak euskal rock taldeak kontzertu bat eskeiniko

du gaur gauean, Zizur Nagusiko industri eremuan. Kontzertuak ikusle gozagarriak bilduko duela aurrikus daiteke, iruñeko gazteen artean ospe eta goraipe handikoa bait da Hertzainak taldea.

Bostkoteak, duela lau ilabete Komites Internazionalistak elkartearen egoitza berrian jo zuten,

baina saioa elkarte honen partaideentzako zuzendu zuten. Hortaz, zaletuek ez dute gaurko aukera galduko eta Zizur Nagusirantz abiatuko dira zihurrenez.

Ikusleek jadanik ezagutzen dituen abeztiez gain, talde honen azken maxi singlearen kantak ere entzuteko aukera izango dute.




Hertzainak taldeak, aspaldiko partez, Iruñerrian joko du.

ARTXIBOA



Europa batuak ekar ditzakeen abantailei urrutiko in-txaurren usaina hartzen diegu sarritan. Batzuetan uste baino eskurago ditugu, ordea. Erasmus programa duela bost urte sortu zen Bruselan eta dagoeneko Nafarroako edozein unibertsitarientzat zabalik dago. Erasmusari esker, ikasleek beren jatorrizko unibertsitateekiko lotura galtzeke atzerrian ikasteko aukera dute. Ikasteko beste modua da: zenbait hilaitez (gutxienez hiru eta gehienez hamabi) atzerriko goimailako ikastetxe batean aritu zaitezke, ikasketen errekonozimendua ziurtatuta duzularik. Era berean, beste unibertsitatean bederatz hilaitez baina gehiago egonez gero, bi titulazio eskura ditzakezu, hangoa eta jatorrizko unibertsitatekoa. Eta poltsikoak hustea ez da premiazkoa, diru laguntza interesgarriak daude eta. Nafarroako Unibertsitate Publikoa aurten sartu da Erasmusaren sarean eta zazpi ikasle bidaliko ditu Torino eta Glasgow-era. Unibertsitate pribatuak, berriz, hiru urte damatza programa honetan eta bertatik hogeitamar ikasletik gora joango dira atzerrira.



# Erasmus: modus stiiandi

A.A.-A.U. / IRUNEA

Erasmus programa 1987ko ekainean onartu zuen Europako Elkarteak, ikasleek Unibertsitatez aldatzeko aukera izan zezaten eta goi mailako irakaskuntzan lankidetzaz bultzatzeko asmoz. Hitz politikak, baina ezerezean geldituko direnak, pentsatu zuen askok duela bost urte. Izan ere, Bruselan jaiotako hainbat ekimen hutsean gelditu dira, mugak mapetan ezezik eguneroko bizitzan ere igartzen direlako. Dena dela, Erasmus programa salbuespen urrien artean azaltzen zaigu, hasierah finkatu zituen helburuak pausoz pauso betetzen doa eta.

**ABANTAILAK ETA BALDINTZAK** 1987a baino lehen atzerrian ikasterik baze-goen. Zein dira orduan Erasmus-ak eskaintzen dituen abantailak? Lehenik, akademikoak, jatorrizko unibertsitateak kanpoan egindako ikasketak errekonozitzen dituelako eta bertako zein atzerriko unibertsitatearen titulak eskura daitezkeelako. Gainera, diru laguntza ematen dira, bai matrikula ordaintzeko, bai ikasketa aurretik hizkuntza ikas-taroea egiteko eta baita hileroko gastuei aurre egiteko.

Eta zer da ikasleari eskatzen zaiona? Bereiz emaitza akademiko eragin handia du. Domingo Pellizer, Nafarroako Unibertsitate pribatuen Arkitectura fakultateko Erasmusaz arduratzen denak dioenez, «batzutan ez da batere erraza kanpoan ikasi nahi duen jendea aurkitzea, zientzi karre-rtan bereziki. Ikasleak buru be-



Florentziako Unibertsitateak urtero hainbat ikasle atzerritar jasotzen ditu.

lari sartuta daude beraien ikas-ketetan eta arrisksuegia iruditzen zaie ikasturte osorako atzerrira joatea. Horregatik, nik gehiago baloratzen dut ikaslearen interesa bere curriculum-a baino».

**NUP-AREN AURRENEKO URTEA** Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) aurten sartu da Erasmusaren sarean. Juan Carrascok kontatu digunez, izerdi asko kostatu zaie hori lortzea, unibertsitate berria delako. NUPak lau proiektu aurkeztu zituen, baina azkenean bi besterik ez dizkiete onartu, Industri Inge-nieritza eta Gizarte Lanekoa hain zuzen.

Horiei esker, Pedro Becerril, Francisco Javier Sarrate eta Pablo Palacios, Iruñerrikoak hirurak, eta Luis Azkona, Iguzkitza-Oteitzakoa, Torinora (Italia) joango dira, bederatz hilaitez

bertako politeknikoan ikastera. Era berean, Gizarte Laneko hiru ikasle Glasgow-erantz (Eskozia) abiatuko dira heldu den otsailen, Strathclyde Unibertsitatean ari-tzeko.

Erasmus egiteko hogeitamar eskaera jaso ziren NUPen eta aukeratutako zazpi hizkuntza ikastarora egin zuten otsailtik maizta bitartean. Hala ere, gehianak ikasturte hasi aurretik joaten dira beren txoko berrira, hizkuntza hobetzeko asmoz, hori delako ikasleen kezka nagusia.

**BOSTEHUN IKASLE BIDALI NAHI** NUPak hiru urteren buruan hiru-hiru ikasle bidaltzeko eta beste hainbat erakartzeko asmoa du, Carrascok azaldu duenez. Eta epe laburrean, urtero bostehun ikasle trukatzera iritsi nahi du, «NUPa mundu zabal-ean ezaguna izan dadin».

Orainoz, ikasle kopurua as-

koz ere apalagoa da, baina hain gutxi izan arren arazoak ez dira falta. Iruñera etortzen diren ikas-leen arazo larriena etxebizitzaren dela dio Carrascok. Hori dela eta, NUPak Iruñeko Udalare-kin hitzarmen bat sinatu nahi-nahian dabil, ikasleek behin-behineko etxebizitzak merkeak lortzeko aukera izan dezaten.

Udalari ezezik, Nafarroako Merkatal Ganbarari eta diru-txei eskatuko die laguntza NU-Pak. Carrascoren iritziz, «Erasmus etorkizuneko inbertzitza dela ikusi beharko lukete horiek eta diru laguntzak eman, EAEn egiten duten modura». Nafarroako beharrei erantzuteko, «nekazaritza» munduari lotutako proiektuak bideratzeak garrantzi handia du guretzat —Carrascoren esanetan—. Atzerritarren-tzat, berriz, ingeniariartzako ikas-ketak dira guk eskaini ditzakee-gun interesgarrienak».

**HIRU URTEKO ESPERIENTZIA** Nafarroako Unibertsitate pribatuko zenbait fakultatek hiru urteko espe-rientzia dute dagoeneko Erasmusarekin, beste batzuk aurten hasten badira ere. Osotara, zazpi fakultatek burutuko dute aurten ikasle trukaketa: Informazio Zientziakoak, Zuzenbidekoak, Filosofiakoak, Ekonomiakoak, Arkiteturakoak, Medikuntza-koak eta, azkenik, Dietetika eta Kimikakoak.

Fakultate bakoitzak gutxienez bi ikasle bidaliko ditu eta batzuk zortzi baino gehiago. Trukaketa-arak aukeratutako unibertsita-teak Frantzia, Alemanja, Italia, Belgika, Holanda, Ingalaterra eta Eskozian daude. Erasmus pro-gramaz Carlos Martinez eta Ka-ren Sanders arduratzen dira eta interesaz gomendatzen da.

## Mainz-etik biderik errazena

A.U. / IRUNEA

**N**ormalean atze-rriko unibertsitateek bertakoek baino eragozpen gehiago jartzen dituzte ikas-gaiak errekonozitze-ko orduan.

**N**afarroako Uni- bertsitate Publikoak urtero bostehun ikasle trukatzera heldu nahi du epe laburrean. Aurten zazpi besterik ez ditu bidali.

Beka eskaeren tramiteak luze irauten dute. Beraz, inportantea da garaitz ibiltzea. Nafarroako Unibertsitate publikoan zein pribatuan izena emateko epea azar- roan hasiko da eta urtarirako arte egongo da zabalik.

**OXFORD «ESKASEGIA» OMEN** Orain arteko espe- rientzia, Nafarroako Uni- bertsitate pribatuko arduradunek diotenez, «ezin hobea izan da» eta «ez da inolako arazorik izan, ez hemendik joan diren ikasle- kin, ez etorri direnekin».

Oztopoak, ikasleen aldetik baino unibertsitateen partetik datoz, batzuk oso exigenteak izaten baita beren ikasgaiak ho- mologatzeko orduan. Pellizerrek esan digunez, «gu oso irekiak ga- ra eta kanpoan egindako edozein ikasturte errekonozitzeko prest gaude, baina ez da alderantziz gertatzen. Atzerriko unibertsita- teek askoz ere eragozpen gehiago jartzen dituzte. Pentsa,iaz Ox- ford-eko unibertsitateekin tru- kaketa egiten saiatu nintzen, bai- na ez zirela ausartzen esan zida- ten. Ez ordea gure ikasleen maila baxuegia izango zelako, baizik eta haien programa, beraiek esan zuten, oso eskasa zelako. Nik eskaskeriak maite ditudala eran- tzu nien, baina ez nituen kon- bentzitu».

**LINGUA, ERASMUS-AREN OSAGARRI** Europako El- karteak Lin- gua programa onartu zuen 1989ko udan. Erasmus sostengatzeko asmoz, Linguak Europako zenbait hiz- kuntzen —ingelera, frantsesa, alemaniera, grekera, irlandera, italianera, portugesa, gaztelera, daniara eta eta nederlandera— ezaguera bultzatzea du xede.

Lingua bi esparrutan mugitzen da: batetik, hizkuntza irakasleen prestakuntzarako laguntzak es- kaintzen ditu eta, bestetik, Eras- mus proiektuetan parte hartuko duten ikasleentzat ikastaroak antolatzen ditu. Etsaerak egiteko honako helbidera jo behar da: Bureau Erasmus. Rue d'Arlos, 15-B-1040 Brusela.

Melanie von Richthofen, Wisbaden-ekoa, Meike Müller, Darmstadt-ekoa, eta Silvia Conesa-Sagre, hiri berekoak gura-soak kataluniarrak badira ere, Iruñera iritsi berriak dira. Hiru- kote alemaniarra iragan igandean heldu zen hona eta dagoeneko ikasle nafarrei buruhauste gehien sortzen dien arazoa konpondu dute: pisua aurkitu dute, nahiko merke eta toki onean.

Egia esan, Erasmus progra- man parte hartzea erabaki zute- netik bide erraza izan dute ale- maniarrek. Melanie, Meike eta Silviak Mainz-eko Unibertsita- tean ikasten dute kazetaritza eta, beste bi ikaslagunekin, Nafarroako Unibertsitate etortzeko eskaera egin zuten. Boskoteak baietza jaso zuen berehala, ino- lako azterketarik egiteke.

Ikasle alemaniarrek astelehe- nean izan ziren lehendabizikoak Nafarroako Unibertsitate priba- tuan eta haren itxurarekin txun- dituta gelditu ziren, «gurea baina

askoz ere dotoreagoa da». Matri- kula zenbat kostatzen den jaki- tean, ordea, zur eta lur gelditu ziren. Aurten 350.000 pezetatik gora dabilta karrera guztiak. Alemanian, berriz, ia ez dago unibertsitate pribatuak eta publi- koetan matrikula 4.000 pezeta inguru kostatzen da sei hilaitez- rako. Melanie, Meike eta Silviak ez dute sosik ordainduko ordea. Erasmusak bere gain hartzen ditu unibertsitateko gastuak eta baita asteartean hasi zuten hizkuntza ikastaroen kostua ere. Gainera, hilerko 5.000 marko (31.000 peze- ta, 1.550 libera) emango dizkiete beraien gastuetzat.

Alemaniarrek hizkuntzagatik eduki ditzaketen zailtasunen bel- dur dira, baina maila akademikoak Mainzeko bako baxuegia izango dela espero dute. Eduardo Oskoz, joan den ikasturte Mainz- en egin zuten iruinsimeak behin- tzat hiri esan die, Iruñean irakas- leek ez dutela Alemanian bezain kontrol gogorra. Meikek esan di- gunez, «han ikargarria da kon- trola. Egunerok pasatzen dute ze-



Melanie, Meike eta Silvia Alemanian baino gutxiago ikasteko nahiarekin etorri dira Nafarroako Unibertsitateara. Bi urte egin dituzten Mainz-eko Unibertsitate kazetaritza ikasten eta Iruñean hirugarren mailan sartuko dituzte espero dute. ANA UNANUE

## NUPetik Torinoko Politeknikora

A.AROJABE / IRUNEA

Nafarroako Unibertsitate Pu- blikoak bi Erasmus programa gauzatuko ditu heldu den urtean. Erasmus sostengatzeko asmoz, Linguak Europako zenbait hiz- kuntzen —ingelera, frantsesa, alemaniera, grekera, irlandera, italianera, portugesa, gaztelera, daniera eta eta nederlandera— ezaguera bultzatzea du xede.

Lingua bi esparrutan mugitzen da: batetik, hizkuntza irakasleen prestakuntzarako laguntzak es- kaintzen ditu eta, bestetik, Eras- mus proiektuetan parte hartuko duten ikasleentzat ikastaroak antolatzen ditu. Etsaerak egiteko honako helbidera jo behar da: Bureau Erasmus. Rue d'Arlos, 15-B-1040 Brusela.

Luis Azkonarekin batera Pablo Palaciosen izena azaldu zen. Pa- blok adierzi duenez, «espedien- tea, notak, garrantzi handia ditu Erasmus bat eskuratu ahal izate- ko, dena den, ekainean dena gaintzeak abantail handia da baita ere».

Torinora joateko italieraz hiz- zigiten jakitea ezinbestekoa da eta hizkuntzaren traba hau gain- ditzeko asmoz Nafarroako Uni- bertsitateak ikastaro batzuk an- tolatu zituen. Italiako klaseak astean bitan izaten ziren, baina Pablok dienez bezala, «Klase hauekin ezinezkoa da Italia- ra menderatzea. Egia esanda ez dut Italiara ondo menderatzen, baina moldatuko horrek ez nau kezka- tzen. Ingenieritza ikasketak oso teknikoak dira eta hizkuntzak

ez du horrenbesteko lehenasu- nik. Zuzenbide bezalako karrera izango balitz arazoa bestelakoa izango zen».

Udara honetan hizkuntza ho- betzeko ikastaroren bat burutze- ko aukera izan duen galdezen diodanean, arazo bat duela eran- tzutzen dit. «Jaso dudanez diru- laguntza iraubizitzeko hainekoa da, hau dela eta, udaran lan egitea erabaki dut. Honela behar dudanez diru eskuratzeko aukera dau- tolatu zituen. Italiako klaseak astean bitan izaten ziren, baina Pablok dienez bezala, «Klase hauekin ezinezkoa da Italia- ra menderatzea. Egia esanda ez dut Italiara ondo menderatzen, baina moldatuko horrek ez nau kezka- tzen. Ingenieritza ikasketak oso teknikoak dira eta hizkuntzak



## Gazteendako Zokoa


## Eper grisa

*Perdix perdix*

Iraungipen arriskuan dago.

Hegan egiteko zailtasunak.

Erronkarian bizi dira gutxi batzuk.



## Iraungipen arriskuan

Nafarroan iraungipen arriskuan egon arren, duela urte batzuk, Erronkari garaiaren zonaldean kabiak egiten zituzten epar grisen talde bat aurkitu zuten. Erronkariko eper grisen talde hau Nafarroa osoan dagoen bakarra denez, babesturik dago.

Eper grisak, eper arrunta baino txikiagoa da eta aurpegia gaztainakara argi kolorekoa du; bere lepoa eta bularra grisak dira, goikaldea okre koloreko zerréndaz estalita dauka eta buztana gorri antzekoa. Arra eta emea bereiztea erraza da, arrak bularrean ferra antzeko zikin bat bait dauka.

Azkar eta arin ibili ohi da, lepoa tente eta gorputza makur. Egan egitea kostatzen zaio eta sastraka artean izkutatzen da. Hau dela eta ehizerako harrapakin erreza da. Beharbada eper grisaren gutxitzearen arrazoia honakoa da.

Udazken eta negu aldean taldeka bizi da. Elikagai gustokoenak ale eta fruituak ditu, baina xomorro eta harrak ez ditu ukatzen, batez ere uda aldean. Arraultzak horri eta belar lehorez egindako habi arrunt batean jartzen ditu urtean behin

Etxean nengoñ, guztiz asperturik, ikastolako lanak eginak nituen. Ez nuen telebista ikusteko gogorik. Nire lagunak nirekin hasarretu ziren. Hura poza. Nire ama abesten entzun nuen, zirudenez ni baiono hobe zegoen. Harengana joan nintzen, asperturik nengoela esan nion. Berak ez zuela errua erantzun zidan eta abesten jarraitu zuen. Nire amak esandakoa ulertu nuen, azken finean errua nirea zen. Nire ama ixildu zen. Orduan ixilunea aprobetxatuz zerbait kontatzea eskatu nion. Ez zuela gogorik esan zidan eta motiborik gabe guztiz haserretua nire gelara joan nintzen.

Ordu erdi bat iragan ondoren nire aita heldu zen. Nire gelatik ixilka atera nintzen sukaldarantz abiatuz, eta gurasoak zer zioten entzuten saiatu nintzen eta arruntena zena: eztabaidatzen zeuden. Ez nintzen batere harritu. Nire gelara itzuli nintzen eta indar gehiegirekin itxiz.

Nire aita korrika niragana etorri zen eta gelan sartuz agurtu zi-

dan. Zer gertatzen zitzaidan galdetu zidan. Ez nuen erantzun. Berak berriro ere galdetu zidan. Ez nuela hitzegiteko gogorik esan nion. Nire aita kezkatu gabe joan zen. Eta ni jaramonik egin gabe tea afaldu gabe ohera sartu nintzen. Biharamunean ikastolara joan nintzen, egia esan ez nuen oso ondo pasa. Ostirala zen. Ez nengoen batere pozik. Ez nekien zer egin astebukarean.

Eguerdia pasatu zen. Etxera heldu ondoren egin nuen lehenengo gauza nire gelara sartzea zen. Nire ama atzetik zetorrela susmatu nuen baina nik nire gauzak egiten jarraitu nuen. Nire amak nitaz kezkatu zegoela esan zidan, begirada zorrotz batekin begiratu nuen. Asperturik nengoela esan nion, orduan nire amak arratsalde osoan gauzak egin behar zituela erantzun zidan baina egun hori berezia izango zela zin egin zidan. Ni zerbait alaitu nintzen, ala ere ez zen oso

## LEYRE RODRIGEZ.

*Eultza I.P. 7. maila*

pozgarria izan.

Nire ama jantzi, aurpegia margo-

tu, berokia jarri

eta jadanik kotxean geuden. Zelai zabal eta orlegi batera eraman ninduen. Zelaiaren erdi erdian txiringito bat zegoen. Nire ama harutz abiatu zen eta bi izozkin erosi zituen. Niretzat urrazkoa eta berarentzat akeitzakoa.

Txiringito hartatik urrundu eta zelaiaren eseri ginen. Bapatean eta es dakit zergatik, nire amari galdetu nion ea inoiz ez zuen anai—arrebarik nahi. Berak baietz erantzun zidan, anai—arriba asko nahi zituela. Ixildu zen. Hariturik begiratu nion, bere bi begi orlegietatik bi malko txiki erori zitzaizkion. Ni ezin zinetsi nengoela eta ahots fin eta leun batekin aizpa bat zuela esan zidan. Nik ez nekien zer esan. Nahiko hasarraturik gelditu nintzen eta horrela esan nion:

—Ez al dizu lotsarik ematen? Hamairu urte ditut, zure seme-alaba bakarra naiz, ez dut osaba,

izebik ere ez eta ez didazu zure ahizpa ikustea inoiz eraman. Eta gainera, zergatik esan behar didazu hamairu urte ditudanean? Zergatik ez nekien ezer?—ixildu nintzen.

Nire ama negarrez eten gabe zegoen. Gehiegi hasarretu nintzela konturatu nintzen, baina, ez al zegoen motiborik? Nire amari ea aitak zerbait zekien galdetu nion. Ezetz erantzun zidan, nik bakarrik nekila hori. Ni lasaituz nire izeba berriaz hitz egitea eskatu nion. Nire amak patrikatik mukizapia atera eta bere begietatik malkoak desager arazi zituen.

—Txikia zenean, oso txikia zenean, sendagileak oso neska arrunta zela esn zigun, bai niri, garai hartan bereratzu urte nituela eta bai nire gurasoei, oso zaharrrak zirela. Jaio berria zen eta etxera eraman genuen. Urte bat zuenean estula handi bat hartu zuen. Hilabete oso batean gaixorik egon zen. Oso kezkatu zirek geunden.

## KAZKARROAN


## Jenero Xumekoak

Romanzado, euskaraz Maiteaga

**T**oponimoetan tristenak idatz ditzaket gau honetan. Esate baterako 'nire nobiyoa Imirrizakdukoa zan, eta Orba ibarreko euskara teknikariarekin joan zait'. Ilargi eder—ederra dago, eta lekutan izarrak elkarri ekupuntcraketan dabilta. Nik maite nuen maitagarri, baina hark ni noizean behin bakarrikan eta halaxe ez dago nora joanik. Toponimoetan tristenak idatz ditzaket gau honetan. Gaur bezalako gau batean nire besoetan loak hartzen zuen eta orain nire abotsa alferrik haren bila dabilkit, nire gogoak ez bait du amore eman nahi, nire baitan sortzen den azken dolua izanda ere, nik idazten dizkiodan azken toponimoak direla ere.

JEREMIAS ERRO

## HITZ GURUTZATUAK



N-37

**EZKER-ESKUI:** 1.- Gabarrak. Eduki. 2.- Besoaren atala. 3.- Hamar bider hamár. Joan zaitetz. 4.- Bizkaiko ibaia. Gaia, gauza. 5.- Nitrogenoaren sinbolo kimikoa. Garai. Tona. 6.- Pasa, iragan. Jatorri atzizkia. 7.- Bizkaieraz, hiri. Kontuz! 8.- Autonomi lurralde baten. araudia. 9.- Garrak. Metale mota.

**GOITI-K-BEHERA:** 1.- Kainen anaia. Izuri, ospa. 2.- Izeba-osaben seme edo alaba. 3.- Bizkaieraz, sasia. Arto, hitz elkarketan. 4.- Erronkarieraz, han. Pluralean, musika konposizio mota. 5.- Kontsonantea. Zoro. Kontsonantea. 6.- Joan den urteko. Alderantziz, zaren horrek. 7.- Arrazoia. Eskaini eta ez eman. 8.- Elkartasun. 9.- Erroten uren ibilgua. Alderantziz eta erronkarieraz, hau.

## Zaharrak Berri

Abenduko eguna argitu orduko iluna.

Abenduan, urtearen azkenengo hilabetean, eguna hotza izan ohi da eta gaua luzea.

**Bista ona eta ekar ezin ikusi.** Bi lagun elkarrengana haserre daudenean.

Aitak esan zion sei urteetako semetxoari:

—Aizu, Aitor! Gaur gauean neska txiki bat ekarri digute Paristik.

—Bai? eta amak ba al daki?— galdetu zion Aitorrek.



## Bizi Bizian

# Dinosaurioak Iruñera itzuli dira

**I**ruñeko Gotorlekua aurrehistoriaren lekuko bilakatu da azkenaldi honetan. Duela bostehun miloi bat urte bizi izan ziren dinosaurioak, 1992ko abuztuaren 25ean itzuli ziren Iruñera, 'La Caixa' diruetxearen eskutik, eta hilaren 27rarte bertan egoteko asmoa dute, berriro aztarrik utzi gabe desagertzeko.

reistoriko baten burua eta anarekin topo egiten dugu. Buruaren ezarririk ertetzen diren doinu izugarriek aurreistoriaren garaian gaudela gogorarazten digute.

Aurrerago jarraituz, tamainu txikiago batean, zazpi animalia aurreistorikoen irudiak ikus daitezke. Erraldoi hauek ezkata ximur eta latzez estalirik dute larua, begiak txikiak eta disdiratsua izan arren, ahoa izugarri handia eta hortz zorrotzez beterik dute. Zazpietatik seik lendere jalek ziren bere garaian, hortaz, zuhaitz eta basoetaz beteriko zonaldeetan bizi ziren. Ikusleak gerturatzeko bakoitzean beregintzak martxan jartzen dira eta animalia hauen mugimendu eta hotzak sortarazten dituzte. Gurasoekin dijoazten mutiko eta neskatok txikiak izutu egiten dira maiz eta negarrak aditza ez da harriztekoa izaten.

Erakusketaren ibilbidea motza izan arren etekin handikoa da. Batetik, garaiko animalien itxura, mugimendu eta hotzak ezagutzeko aukera ematen die bertaratzeko diren guztiei. Eta bestetik, bideoa, xostena eta azalpen zehatzak ematen dituzten kartelak, aintzinako bizimodu urrikigabearen sartu ahal izateko behar dugun informazioa luzatzen digute.

Ezagutza eta ikuskizuna baten dituen erakusketa erraldoi hau antolatu ahal izateko, batetik, ikerta sakonak burutu dituzten adituak eta bestetik, animalien beregintza arduratzen diren teknikarien arteko elkarlana ezinbestekoa izan da. Dena den, maketak gauzatzea proiektuaren zatirik zailena izan da. Lan honen arduradunak Ipar Ameriketako aditu ospetsuak izan dira. Zine-

mako mamurik gehienak beraiek egindakoak dira eta azpimarratzekoa da Tiburon filmean egin zuten lan ezinhobea. Baina teknikari hauek kontratatzeak arazo aunitz ekarri dizkie erakusketaren antolatzaileei. Beregintzetan suertatzen den zulorik nimoena konpontzeko gaitasuna teknikari hauen esku dago bakarrik. Hortaz, irudiak egoera onean mantentzea oso garestia izaten da. Erakusketaren gastuei aurrera egiteko ikusleek sarrera ordaindu behar dute: haurrek eta antolatutik dauden taldeek 200 peseta, nagusiek berriz 400 peseta ordaindu behar dute. Aiton amonek dohin sartzeko aukera izango dute, baldin eta ilobekin sartzera.

Haurrak eta gaztetxoak erakusketa honen parte hartzaile nagusiak dira. Hauentzat, dinosaurioak ikusteko sortzen diren ilara luzeetan itxaroteak merezi du. Gazteenak sarrera erosi bezain laister, adorea baztertu eta gurasoen eskuak gogor eusten dituzte bada ez bada ere... Aretoaren sarreran, aurreistoriako erraldoi baten buruak ongiatorria ematen die. Azala ezkata ximurrez estalik dauka, begiak txikiak eta disdiratsua eta agin zorrotzez beteriko ahoa. Gainera ohitu ikaragarriak jaurtikitzen ditu. Harrek lehenengo ikara une hau igaro ondoren, barruan dauden zazpi dinosaurioak ikusteko prest daude. Barruko zazpiak ikustea irriki berezi bat sortarazten du umeengain, ohiukatzeaz gain mugitu egiten bait dira eta hau ez da eguneroko ikuskisuna. Aurreistoriatik emandako pasealditxo amaitu arte bertaratu diren ume askok ezin izango dute ikusitako erreza ahaztu.




Dinosaurioek haurren ikusmina sortu dute.

JOXE

AINHOA ARROIABE / IRUÑEA

Erakusketaren sarreran informazioa eta gida bezala erabil daitezkeen bideo bat dago. Bideo honetan munduaren sorrera, lehenengo bizidunak eta dinosaurioen jaiotza eta heriotza agertzen dira. Erakusketaren zatirik adierazgarriena eta era berean erakargarriena dinosaurioen antzeko irudiak ikusi ahal izatea da. Erakusketaren lehenengo aretoan, Gotorlekuko pareta luzean tamaina bera duten animalia au-

## EUSKARA KOMUNIKABIDEETAN



Josetxo Azkona zazpi urtez aritu da Herri Irratian.

ARTXIBOA

# Herri Irratiko euskal ahotsari agur

A.U. / IRUÑEA

Herri Irratiak Nafarroan zuen ahots euskaldun bakarra joan den astelehenean isilarazi zuten, agian betirako. Josetxo Azkonak ez du bere arrenkura ezkatatu, Herri Irratiko arduradunak kolpe batez eta inolako esplikaziorik gabe ezerezean utzi bait dute euskarazko programazioa.

Horrela, zazpi urteko ihardunak ezusteko amaiera izan du. Azkonak ez du uste erabakiaren zioa ekonomikoa izan denik: «Dirua ez zen arazo, saioak Diputazioaren diru laguntzekin ordaintzen zirelako ehuneko ehun. Irratiak bere poltsikotik ez zuen sosisik jartzen beraz».

Diruak baino egunetik egune-

ra gogortzen ari den irratiaren arteko konpetentziak eragin gehiago izan duela dio Azkonak. «Euskarazko programazioa kentzea irrati munduan gertatzen ari denarekin lotuta dagoela uste dut. Gero eta konpetentzi latzagoa dago; kontratu milionariak egiten dituzte, Jose Maria Garcia-rena kasu, eta horrek segada izugarriak dakartza. Testuinguru horretan, euskara traba bihurtu da irrati arduradunentzat».

Izan ere, irrati kate berriak indarrez sartu dira eta Herri Irratiak berehala igarri ditu ondorioak. Azkonak azpimarratzen duenez, «egunero entzuten ari gara Copek hainbeste entzunle galdu dituela eta Antena 3ek horrenbeste irabazi dituela. Gezurra

ala egia izan, datu horiek aintzat hartzen dira». Lehia bizia onerako izan beharrean, «mezu homogeneizatuak» dakartzala eta ezberdintasunak berezko duen aberaskatunaren kalterako dela uste du Azkonak.

Gertatu denagatik oraingoan kritikak Herri Irratiak jaso arren, irrati pribatu guztien jokabidea salatu behar dela dio Josetxo Azkonak. «Herri Irratiak, bere gorabehera eta muga guztiekin, gutxienez euskarazko irratsaio propioak sortu zituen. Gainontzeko irrati pribatuek, berriz, ez dute ahaleginik ere egin eta ez daukate aitzakirik, Diputazioaren dirulaguntzekin saioen kostuak osotasunean ordaindu daitezke eta».



# Senen Barriuso

..... gitarrajolea

**P**atagonia rock talde iruindarraren maketa berria aurki izanen da diskoa denda eta tabernetan salgai. Batzuk Guns and Roses euskaldunak direla diote, eta beraiek pertsonalitate propio eta berezia dutela esaten dute, «txarrak» direlako. Txarrak ala ez, azken bi hilabetetan Nafa-

roako eszenatoki askoren gainean izan da Iruñeko boskotea, eta apurka-apurka disketxeen arreta bereganatzen ari dira. Jadanik Pottokak eta Balerdi-Balerdikoeak bere diskoak plazaratu zituzten, eta aurki gauza berbera egin dezakete Patagoniakoeak. Nafarroan euskal musikaren ordua heldu da.

## «Oso zaila da Nafarroan euskaraz abestea»

JUAN CRUZ LAKASTA / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Zuen kanten letra guztiak euskaraz egiten dituzue, taldea osatzen duzuen guztiak euskaldunak ez bazarete ere. Bestalde, argi dago euskaraz abestek Nafarroan ate bat baino gehiago ixten duela. Nolako da euskararekin duzuen harremana?

**SENEN BARRIUSO.**— Bizitzan aukera asko izaten dituzu eta zuk erabaki behar duzu zer egin. Euskaraz abestea aukera horietako bat da, eta, esan bezala, zuk erabaki behar duzu zer egin. Euskaraz egia esateko apur bat mugatzen gaitu, baina alde batetik soilik. Nafarroan, egia esateko, arazoa handiagoa da. Agian Gipuzkoa eta Bizkaiarantz jo beharko dugu. Asteburu honetan Arrasaten joko dugu Arrasate Euskalduntzenek antolatutako kontzertuan. Gustatuko litzaiguke bide horretatik jarraitzea.

Dena den, Nafarroan azken bolada honetan maiz jo dugu. Bi hilabetetan hamar kontzertu egin ditugu. San Ferminetan txoznetan izan ginen, gero Altsasun, Leitzan, Barañain, eta erriberan leku askotan. Ostiralean esatebaterako Argetasen joko dugu.

**EGUNKARIA.**— Pottoka, Balerdi-Balardi, Patagonia... Badirudi euskal musika berpizten ari dela Nafarroan. Aurrerako bien bidea jarraitzeko asmoa duzue?

**BARRIUSO.**— Ez da bere bidea jarraitzea ala ez. Balerdi-Balardi eta gu geu ia-ia aldi berean sortu ginen, eta batera ibili gara mundu honetan. Gustatzen zait egiten dutena, baina ezberdina da.

Correkoak lagunak dira, baina oraingoz behintzat beraiekin grabatzeko ideia ez da sortu. Hemengo disketxe batek beste talde batzuekin batera disko bat grabatzeko aukera eskaini zigun, baina ez zitzaigun ideia gustatu.

Nahiago izan dugu maketa ateratzea.

**EGUNKARIA.**— Hiru talde horiek ez daukazue euskal rock radikalarekin zerrikusi handiegirik. Hilal da musika mugimendu hori?


**BARRIUSO.**— Inoiz existitu al da? Ez dakit. Garai batean mugit-

**B**izitzan aukera asko izaten dituzu, eta zuk erabaki behar duzu zer egin. Euskaraz abestea aukera horietako bat da, eta zuk horri heletzea erabaki dugu.

da politiko bat zegoen, testuinguru politiko zehatz bat, eta testuinguru horretan talde batzuk sortu ziren. Aurrera ateratzea oso onak zirelako lortu zuten. Hertzainak, Zarama, La Polla... onak ziren, baina ezberdinak.

**EGUNKARIA.**— Leitzan Hertzainarekin batera jo zenuten behin, IKAK euskararen alde antolatutako kontzertu batetan. Zer nolako esperientzia izan zen hori?

**BARRIUSO.**— Oso potentea. Oso pozik bukatu genuen kontzertua, eta nire ustez Hertzainakoeak ere oso ondo pasa zuten. Berriro elkarrekin jotzen badugu giro berbera sortzen saiatuko gara. Josu Zabalak txantxetan kontzertuaren amaieran bi taldeek batera Bob Dylanen 'Knocking at heaven's door' jo genezakeela komentatu zuen. Azkenean egin genuen, entsaiatu gabe, eta ederki atera zen. Entzuten egon zen jendeak ere ederki pasa zuen. Gainera, Leitzako jendea ezagu-



Iruñeko boskoteak eszenatokia eta andamioak txandakatzen ditu.

tzen dugu, eta han jotzen dugun bakoitzean harreman polita sortzen da entzulegoa eta gure artean. Kontzertuaren bukaeran guztiak ederki jo genuela esan ziguten, eta sinisten ez baduzu ere, horrek aurrera segitzeko indarrak ematen dizkizu.

**EGUNKARIA.**— Zuen kontzertuetan egon den jendeak Guns and Roses euskaldunak zaretela dio.

**BARRIUSO.**— Pertsonalki pilo bat gustatzen zait G&Ren lehen diskoa. Gure itxura dela eta, edo agian bere abesti baten bertsioa

egiten dugulako, sarritan esaten digute hori. Gure estiloa ez dator bat Barricadak sortu zuenarekin. Jendeak zer edo zer esan behar du beti, eta horregatik G&Rena botatzen du. Nik uste dut gure pertsonalitatea berezia dela, agian oso txarrak garelako.

**EGUNKARIA.**— Barriada talde gogor bat izatetik 'Los 40'eko izarrak izatera pasa da. Zer deritzozu eduki duen garapenari? Gauza bera egingo zenukete aukera izatekotan?

**BARRIUSO.**— Lehenik eta behin ez dut uste 40etara ailegatzeko

aukerarik izanen dugunik. Dena den pertsonalki ez zait batere gustatu Barricadaren joera. Euskal Herrian bizi dugun egoera ahaztu dute. Bere arima botere faktikoei saldu diete.

**EGUNKARIA.**— Esai-guzu zenbat kanta bildu dituzuen maketan, eta bakoitzean zer kontaktzen duzuen.

**BARRIUSO.**— Lau abesti besterik ez. Lehen biak rokanroleroagoak dira. Hasi ginenean egin genituen, eta gure estiloa apur bat aldatu da harrezkero. Lehen kantak, 'Goiz gogorak', bestondo baten istorioa kontaktzen du. Gau alai baten ostean, tipo batek dituen burutazioak kontaktzen ditu. Bigarrean, '130n', beno... lagun batzuk kotxean doaz, musika entzuten, abiadura eta guzti hori. Kanta nahikoa dela eman dezake, baina badauka bere xarma.

'Edonoiz' amodiozko kanta da, baina nahikoa berezia. Lagun batek idatzi zuen eta berak amodioa nola ikusten duen kontaktzen du. Gu ikuspuntu horrekin bat gatoz. Labur bilduz, bakoitzak nahi duena egin dezala. Azkenik 'Etxetik urrūn' preso baten egoera kontaktzen du. Presoen egoera guk nola ikusten dugun kontaktzen dugu abesti horretan.

Kantak Dabid abeslaria eta bion artean egin ditugu, eta musika guztion artean. Gitarrekin hasten gara eta gero bajua eta bateria gehitzen ditugu.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

